

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

502

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 22koa, Kulturako sailburuordearena, 2018. urtean praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturgune independenteei zuzendutako diru-laguntzak jakinarazten dituen (Sorgune deialdia).

2017ko abenduaren 29ko EHAAren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko abenduaren 27ko Agindua argitaratu zen, praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturagune independenteei zuzendutako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 12.2 artikulua dioenez, Kulturako sailburuordeak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizatua egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko abenduaren 27ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta haien onuradunak jakinaraztea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 22a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA EMAN ZAIENEN ZERRENDAA

Eskatzailea	Proiektua	Diru-laguntza
Asociacion Cultural Consonni de Bilbao	Espacio cultural Consonni	97.999,00
Asociacion de Artistas Artitadeto	Bitamine Faktoria	117.105,00
Azala espacio de creacion y alojamiento rural S. L.	Azala	120.000,00
Garaion koop. Elk. Txikia	Garaion sorgingunea 2018-19	115.010,00
Teatro Paraiso SAL	KunArte	109.886,00